



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 8a

113. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/ITP-00027. Interpelazioa, Nafarroako parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Irati Jiménez Aragón andreak egin du (3. or.).
- 11-24/ITP-00028. Interpelazioa, sexu-indarkeriaren aurkako politika orokorrari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (4. or.).
- 11-24/MOC-00114. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Barajasko aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa ukatu izana berrazter dezan, horien asilo-eskaria modu justu eta gardean aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbidearen arabera. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetzea (4. or.).
- 11-24/DEC-00043. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Dislexiaren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00307. Galdera, Zizur Nagusiko Catalina de Foix ikastetxe publikoko familiek salatutako egoerari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00308. Galdera, neurozientziari aplikatutako adimen artifiziala ikertzeko “Ramón y Cajal-Petilla de Aragón” bekei buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00309. Galdera, Nafarroako emakumeen aurkako sexu-erasoei eta eraso fisikoei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00310. Galdera, Acciona Generación Renovable, SA enpresaren egoitza soziala Madrilera eramán izanari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00311. Galdera, Gazteria eta Etxebizitza topaketei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00312. Galdera, AGROALNEXT nekazaritzako elikagaien planaren I+G programen aurrerapauso, mugari eta emaitzei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (9. or.).

- 11-24/POR-00313. Galdera, metabertsoak nafarren bizi kalitatean duen eraginari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00314. Galdera, Lizarrako osasun-etxearen egungo eraikina bertan egiten den jarduera modu egokian hartzeko nahikoa ez izateari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00315. Galdera, Nafarroako Gobernuak lehiakortasun fiskala hobetzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00316. Galdera, toki entitateei laguntzeko neurriei buruzkoa, Toki Inbertsioen Planean onetsitako obrak direla-eta. Mario Fabo Calero jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00317. Galdera, eskola-jantokiei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaier andreak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00318. Galdera, Eliza katolikoaren baitako sexu-abusuak aztertzeko batzordearen lan-esparruari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00319. Galdera, oinarrizko osasun-laguntzan bete gabeko mediku eta pediatra lanpostuei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00320. Galdera, Bildurekiko aurrekontu-itunek Nafarroako Foru Komunitatean izanen duten eraginari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00321. Galdera, 2025eko aurrekontuetan klase ertainen eta langileen zergak jaisteari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00322. Galdera, Nafarroan etxerik gabe dauden pertsonentzako ibilbide-orriaren zirriborroari buruzkoa. Javier Arza Porrás jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00323. Galdera, asiloa eskatu zuten sahararrak Marokora deportatu izanari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00324. Galdera, Nafarroan ELA Legeak izanen duen eraginari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00325. Galdera, Europako Kontseiluak euskarari buruz egindako azken txostenari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00326. Galdera, landa eremuko larrialdiak artatzeko etengabeko arretarako guneak ixteari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurea jaunak egin du (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00027. Interpelazioa, Nafarroako parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa

IRATI JIMÉNEZ ARAGÓN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irati Jiménez Aragón andreak egindako interpelazioa, Nafarroako parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Irati Jiménez Aragonek, Ganberaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Félix Taberna Monzon lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari zuzendua, Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Parte-hartzea funtsezkoa da politika publikoak eta horien kalitate demokratikoa hobetzeko, eta erakundeengan konfiantza sortzen laguntzen du. Gainera, herritarren eskubide bat da, funtsezkoa praktika txarrak eta ustelkeria desagerrarazteko.

Horregatik guztiagatik aurkezten dugu Nafarroan parte hartzearen arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau.

Iruñean, 2024 urriaren 3an

Foru parlamentaria: Irati Jiménez Aragón

11-24/ITP-00028. Interpelazioa, sexu-indarkeriaren aurkako politika orokorrari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako interpelazioa, sexu-indarkeriaren aurkako politika orokorrari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, urriaren 10eko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Urriaren 2an, 3an eta 4an egin zen Nafarroan Sexu-indarkerien I. Kongresua. Honako hauek izan ziren bertan jorratu ziren gai nagusiak: esku-hartzea, erreparazioa eta sexu-indarkerien aurreko estrategia feministak.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak sexu-indarkerien aurka darabilen politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkezten diogu Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuari.

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: María Olga Chueca Chueca

11-24/MOC-00114. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita Barajasko aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa ukatu izana berrazter dezan, horien asilo-eskaria modu justu eta gardenean aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbidearen arabera

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2024ko urriaren 7an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetu dadin Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita Barajasko aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa ukatu izana berrazter

dezan, horien asilo-eskaria modu justu eta gardenean aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbidearen arabera. Mozioa 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/DEC-00043. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Dislexiaren Mundu Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du urriaren 8an izanen den Dislexiaren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Hori dela-eta, ekitaldi instituzional bat egingen da, 12:00etan, DISNAVARRA elkartearekin batera.

2. Nafarroako Parlamentuak dislexiadun haurrei beren eskola-bizitza osoan zehar hezkuntzarako eskubidea bermatzearen aldeko apustua egiten du, dislexiadun ikasleen hezkuntza-inklusioren printzipioa eraginkorra izan dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak bere fatxada urdin turkesa kolorez argizatuko du urriaren 8an.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00307. Galdera, Zizur Nagusiko Catalina de Foix ikastetxe publikoko familiek salatutako egoerari buruzkoa

ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Zizur Nagusiko Catalina de Foix ikastetxe publikoko familiek salatutako egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Berriki, Zizur Nagusian dagoen Catalina de Foix ikastetxeko familiek salatu dute jantoki-zerbitzuan ematen ari diren janaria kalitatea txarrekoa dela.

Zer neurri hartu ditu Hezkuntza Departamentuak egoera hori zuzentzeko?

Iruñean, 2024 urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00308. Galdera, neurozientziari aplikatutako adimen artifiziala ikertzeko “Ramón y Cajal-Petilla de Aragón” bekei buruzkoa

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak egindako galdera, neurozientziari aplikatutako adimen artifiziala ikertzeko “Ramón y Cajal-Petilla de Aragón” bekei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta

Eraldaketa Digitaleko kontseilari Patricia Fanlo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Irailaren 28an, Petilla Aragoiko Udalarekin batera egindako ekitaldi batean, Ramón y Cajal beka sortuko direla iragarri zuen Fanlo kontseilariak. Bost beka izanen dira, bakoitza 2000 eurokoa, eta adimen artifiziala neurozientzian aplikatzeko ikerkuntzara bideratuta egonen dira. Deialdi horri esker, bost pertsonak ikertu ahal izanen dute nola aplikatu adimen artifiziala, hala sektore publikoan nola pribatuan. Onuradunek Nafarroarekiko loturaren bat izan beharko dute, zeren eta funtsak SINAI-Nafarroako I+G+b Sistemari lotutako ikerketa-zentroetako proiektuetarako bideratu beharko dira. Deialdia zabalik dago, eta eskabideak modu telematikoan aurkeztu beharko dira Nafarroako Gobernuaren atariaren bidez.

Hona galdera: Beka horiek zer ekarpen egiten diote Nafarroako ikerketa-ekosistemari eta, zehazkiago, adimen artifizialaren ikerketari?

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

11-24/POR-00309. Galdera, Nafarroako emakumeen aurkako sexu-erasoei eta eraso fisikoei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako emakumeen aurkako sexu-erasoei eta eraso fisikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan gero eta sarriago gertatzen ari dira emakumeen aurkako eraso fisiko eta sexualak. Hori horrela, nola bermatuko da zehazki emakumeen segurtasuna?

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00310. Galdera, Acciona Generación Renovable, SA enpresaren egoitza soziala Madrilera eraman izanari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Acciona Generación Renovable, SA enpresaren egoitza soziala Madrilera eraman izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urriaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartu zuen Nafarroako Gobernuak, Acciona Generación Renovable SAK bere egoitza soziala Madrilera eramatea ekiditeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00311. Galdera, Gazteria eta Etxebizitza topaketei buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Gazteria eta Etxebizitza topaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den urriaren 3an, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak Gazteria eta Etxebizitza Topaketen lehen edizioa aurkeztu zuen. Topaketa horien helburua Nafarroako gazteekin biltzea da, etxebizitza eskuratzearekin zerikusia duten hainbat alderdiri buruzko informazioa emateko. Bertan, parte-hartzaileek hitza hartu ahal izanen dute, eta zalantzak azaldu.

Zer lortu nahi du Gobernuak topaketa horiekin?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/POR-00312. Galdera, AGROALNEXT nekazaritzako elikagaien planaren I+G programen aurrerapauso, mugarri eta emaitzei buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, AGROALNEXT nekazaritzako elikagaien planaren I+G programen aurrerapauso, mugarri eta emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blascok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Agroalnext nekazaritzako elikagaien planaren helburua da nekazaritzako elikagaien sektorearen eraldaketa digital eta iraunkor bikoitzari laguntzea, sektore horren lehiakortasuna areagotzeko eta Itun Berdean ezarritako klima- eta ingurumen-helburuak lortzeko eta, aldi berean, herritarrei elikagai osasuntsu, seguru, iraunkor eta eskuragarrien hornidura bermatzeko, horiek baitira EBren "Baserritik mahaira" estrategiaren helburuak.

Zer aurrerapauso, mugarri eta emaitza ari dira lortzen programan parte hartzen duten eta Nafarroak koordinatzen dituen zazpi erkidegoetako zentro teknologikoen bultzadarekin gauzatzen ari diren I+G proiektuetan?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-24/POR-00313. Galdera, metabertsoak nafarren bizi kalitatean duen eraginari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, metabertsoak nafarren bizi kalitatean duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan hobetu du metabertsoak nafarren bizikalitatea, sortu eta bi urte eta erdi geroago?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/POR-00314. Galdera, Lizarrako osasun-etxearen egungo eraikina bertan egiten den jarduera modu egokian hartzeko nahikoa ez izateari buruzkoa

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, Lizarrako osasun-etxearen egungo eraikina bertan egiten den jarduera modu egokian hartzeko nahikoa ez izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Fernando Domínguezek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela zenbait urtetik hona, bai Lizarrako osasun-etxean lan egiten duten profesionalak, bai zentro horrek arreta ematen dion oinarrizko eremuko udaletako alkateek adierazi dute egungo eraikina ez dela aski bertako ekipoek egiten duten lan guztia modu egokian hartzeko.

Osasuneko kontseilari Domínguez jaunari honako hau galdetzen diogu:

Nola baloratzen duzu Lizarrako Oinarrizko Osasun Eskualdea bere egungo beharretara egokitutako osasun-etxe batez hornitzeko ekimena, eta zeintzuk dira proposamen hori azkenean zehazteko egin beharreko urratsak?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

11-24/POR-00315. Galdera, Nafarroako Gobernuak lehiakortasun fiskala hobetzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak lehiakortasun fiskala hobetzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak urriaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko duzu gure lehiakortasun fiskala hobetzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

11-24/POR-00316. Galdera, toki entitateei laguntzeko neurriei buruzkoa, Toki Inbertsioen Planean onetsitako obrak direla-eta

MARIO FABO CALERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mario Fabo Calero jaunak egindako galdera, toki entitateei laguntzeko neurriei buruzkoa, Toki Inbertsioen Planean onetsitako obrak direla-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mario Fabo Calero jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hainbat toki-entitatek ez dute ahalmen ekonomikorik dagokien finantzaketaren parte bere gain hartzeko, nahiz eta Toki Inbertsioen Planeko obra bat onetsirik eduki. Zer neurri aplikatuko du zuk zuzentzen duzun departamentuak toki-entitate horiei guztiei laguntzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Mario Fabo Calero

11-24/POR-00317. Galdera, eskola-jantokiei buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, eskola-jantokiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Egunotan zenbait ikastetako familiek salatu dute jantoki-zerbitzuan ematen ari diren janaria kalitate txarrekoa dela.

Zer neurri hartu ditu Hezkuntza Departamentuak egoera hori zuzentzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00318. Galdera, Eliza katolikoaren baitako sexu-abusuak aztertzeke batzordearen lan-esparruari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Eliza katolikoaren baitako sexu-abusuak aztertzeke batzordearen lan-esparruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak 2024ko urriaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Uda baino pixka bat lehenago jakin genuen Elizaren barruko Sexu Abusuen Batzordean parte hartuko zuela Elizak; hori gure erkidegoan aurrerapauso handia izan zen, biktimen errekonozimenduari dagokionez.

Zure departamentuak zer lan dauka planteatuta batzordearen lan-esparruaren barruan?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-24/POR-00319. Galdera, oinarrizko osasun-laguntzan bete gabeko mediku eta pediatria lanpostuei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, oinarrizko osasun-laguntzan bete gabeko mediku eta pediatria lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Domingo González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Medikuntza eta pediatriako osasun-profesionalen zenbat lanpostu daude bete gabe oinarrizko osasun-laguntzan, aurten egin den egonkortze-prozesuaren ondoren, eta zer neurriren bidez arinduko da horren ondoriozko defizita?

Iruñean, 2024ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/POR-00320. Galdera, Bildurekiko aurrekontu-itunek Nafarroako Foru Komunitatean izanen duten eraginari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Bildurekiko aurrekontu-itunek Nafarroako Foru Komunitatean izanen duten eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urriaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bildurekiko aurrekontu-itunek zer eragin izanen dute Nafarroako Foru Komunitatean?

Iruñean, 2024ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00321. Galdera, 2025eko aurrekontuetan klase ertainen eta langileen zergak jaisteari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, 2025eko aurrekontuetan klase ertainen eta langileen zergak jaisteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2025erako aurrekontuetan aurreikusi al du klase ertainen eta langileen zergak jaistea bizi-maila duina eduki ahal izan dezaten?

Iruñean, 2024ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-0322. Galdera, Nafarroan etxerik gabe dauden pertsonentzako ibilbide-orriaren zirriborroari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan etxerik gabe dauden pertsonentzako ibilbide-orriaren zirriborroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak Nafarroan etxerik gabe dauden pertsonentzako ibilbide-orriaren zirriborroa aurkeztu zuen 2024ko maiatzean. Fenomeno hori gaurkotasun handikoa denez gero, ibilbide-orri hori zertan den jakin nahi dugu, horren garrantzakeriari, tenporalizazioari eta neurrien finantzaketari dagokienez.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/POR-00323. Galdera, asiloa eskatu zuten sahararrak Marokora deportatu izanari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, asiloa eskatu zuten sahararrak Marokora deportatu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebil-

tzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak 2024ko urriaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Ekimen hau erregistroan sartu den egunean, jakin badakigu Marokora deportatu dituztela Madrid-Barajasko aireportuan asiloa eskatu zuten 31 ekintzaile sahararretatik gutxienez ere 16.

Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak zer balorazio egiten du Madrid-Barajasko aireportuan asiloa eskatu zuten 31 ekintzaile sahararretatik gutxienez ere 16 Marokora deportatu izanaz?

Iruñean, 2024ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/POR-00324. Galdera, Nafarroan ELA Legeak izanen duen eraginari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan ELA Legeak izanen duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuko lehendakariarentzako gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, 2024ko urriaren 10eko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin.

Urriaren 10ean onetsiko da Diputatuen Kongresuan alboko esklerosi amiotrofikoa eta beste gaixotasun edo prozesu batzuk, konplexutasun handikoak eta atzeraezinak, dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko legea (ELA legea).

Arau horrek zer eragin izanen du Nafarroan?

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00325. Galdera, Europako Kontseiluak euskarari buruz egindako azken txostenari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Europako Kontseiluak euskarari buruz egindako azken txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, bigarren lehendakariorde eta Nafarroako Gobernuo Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak urriaren 10eko Osoko Bilkuran (osteguna) erantzun dezan:

Europako Kontseiluaren azken txostenak ohar-tarazten du euskararen sustapena eta erabilera, bai bizitza publikoan bai pribatuan, zailagoa dela Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean hartutako konpromisoak urratzen dituzten arrazoengatik.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari zaren aldetik, zer balorazio egiten duzu txosten hori dela-eta?

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00326. Galdera, landa eremuko larrialdiak artatzeko etengabeko arretarako guneak ixteari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko irailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, landa eremuko larrialdiak artatzeko etengabeko arretarako guneak ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuo lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Erriberriko etengabeko arretarako gunea itxi ondoren, landa eremuko larrialdiak artatzeko etengabeko arretarako gune gehiago ixtea aurreikusten al du zure Gobernuak?

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea